

Liburujatun, III Irakurketa jokoa Leioan

LEIOA.- Leioako Udaletxearen Kultura Sailak, Udal Liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak, hirugarren urtez irakurketaren inguruko jokoa proposatzen dute, Liburujatun. Liburuez gozatzeko eta irakurketaren alde ludikoa azpimarratzeko xedez kaleratzen dute jokoa. Parte hartzeko bost liburu irakurri behar dira (Egunero hasten delako. Ramon Saizarbitoria, Hamar urte barru. Joxe Belmonte F. de Larrinoa, Han goitik itsasoa ikusten da. Julen Gabiria, Korapiloak. Jasone Osoro eta Kutsidazu bidea Ixabel. Joxean Sagastizabal). Ondoren, horren inguruan egingo dituzten sei galderei erantzun beharko da.

Otsailaren 4an liburuen inguruko galderak argitaratuko dira eta martxoak 31 izango da liburu guztien erantzunak emateko azken eguna.

Erantzunak Kultur Leioako Liburutegira astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 20:00etara, eraman daitezke edo liburutegia@leioa.net helbidera bidali Liburujatun jokorako dela zehaztuz, zuen datu guztiak jarritz (izena, abizena, helbidea, udalerrria, telefonoa, NAN-a, jaiotze data). Erantzuna emailaz bidaltzen baduzue liburutegitik erantzun bat jaso beharko duzue. Liburuen galderak liburutegian eta bere web orrialdean www.bibliotecaspublicas.es/leioa/ edo Kultur Leioako web orrialdean eskura daitezke www.kulturleioa.com otsailaren 4tik aurrera.

Apirilaren 23an, asteazkena (Liburuaren Nazioarteko Eguna), arratsaldeko 18:00etan sari banaketa izango da Kultur Leioan. Kategoria bakoitzean baldintzak betetzen duten guztiak sari hauen zozketan sartuko dira: Bi pertsonentzako afaria Hotel Artazan eta ELKAR Megadendetarako 50 €ko 6 bale indibiduala.

Egutegia:

- Azaroa, abendua eta urtarrila: liburuak irakurri.
- Otsailaren 4tik martxoaren 31ra: galderak erantzun eta liburutegian utzi.
- Apirilaren 23a: sari banaketa.